

## **INDAR IDEIEN ZERTZELADA: GOBERNU EZA**

Alots Gezuraga eta Aitzol Altuna, Errigoiti - Nabarra (2008.12.29)

Espainiar edo frantziar Estatu totalitarioetan (inperialismoa totalitarismoaren semea baita), gobernu bakarra egon daiteke: inbaditzailearena, nahiz eta batzuetan inperialismoak bere interesak asetzeko kolonoen artean bitartekoak aukeratuko dituen, bere helburu den koloniaren suntzipenera eramango duen herri kontsentsua sortze aldera.

Nicolás Maquiavelok XVI. Mendean horrela adierazi zuen: “Estatuak konkistatzean, beraien legediekin askatasunean bizitzera ohituak direnez, hiru era daude herria suntzitzea: lehena herri militarri birrintzea, bigarrena bertara pertsonalki bizitzera joatea eta hirugarrena zergak kobratuz beraien legediarekin bizitzen uztea, bertan zuri leialak zaizkizun gobernu oligarkikoak sortuz. Gobernu horiek badakite printzeak sortuak direla eta ezin izango direla bere adiskidetasun eta botere gabe mantendu”.

Euskal Herrian etsaiak aipaturiko hiru bideak saiatu ditu eta horretan jarraitzen du: Lehena konkista eta suntsiketa militarra, ondoren Sartaldeko Nabarra honetan menpeko gobernuen sortzea (Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Juntak, gaur berriz “Gobierno vasco”), millaka pillaka kolonoren okupazioa pairatzen dugu bertakoon indarra ahultzeko bidaliak karlistaden ostean edo 70. hamarkadan batez ere. Nafarroa Garaian zuzenki birrintzera jo dute, non jada, herria ahuldu dutenean, zuzenean agintzen duten inolako bitartekotzarik gabe.

Garai batean Iparraldean ere bitartekariak edo Juntan ekibalenteak erabili zituzten, azkenik erboluzio frantsesean garbiketa egin arte. Hala ere, Munduko II. Gerratera arte ez zuten lortu “frantses” sentimendurik euskaldunen artean zabaltzerik. Orokorrean emeki emeki gure herria ahultzera jo dute, horrela XVII. mendetik Iparraldea atzeraka bidean jarri delarik nabarmen, Baiona esaterako, askoz hiri garrantzitsuagoa zen garai haietan egun dena baino.

Gizakiaren historia bezain zaharra da. Militarri okupatua dagoen Estatu batean, Gobernu ofizial bakarra egon liteke, inperialismoak inposaturikoa. Gobernatzaile (administratzaile) hauek inperialisten adostasunarekin bakarrik goberna (administra) dezakete: inperialisten epaile, lege eta ejertzitoetan oinarritzen da euren boterea (administrazioa), horregatik inperialismoa bera da gobernatzailea.

Inbaditutako Estatu batetan bertako Gobernua erbesteratzera behartua da, klandestinitatean bizitzera edo desagertzera behartua. Azken hau da 1620. urteaz geroztik Nafartarron errealitatea, tamalez askatasuna berreskuratzeko egoerarik latzena.

Inperialistek onartutako “Euskal edo Nafar Gobernu” bat ez da inoiz euskal herriak sortua, euskal siglak dituzten instituzio atzerritarrak baino ez dira, ez dute herria ordezkatzeko. Horregatik ez luke herriaren kontsentimendurik lortu behar, boterea beti herriaren

kontsentimenduan oinarritzen bait da zeren boterea beti herriarengan dago, beti! Gobernu hauek inperialisten indarrak sortuak inperialisten interesei bakarrik erantzuten die, honetarako gure arteko traidoreak bultzatzen ditu administratzaile lanen egitera. Gure herriaren indarraren bildur diren heinean "bitarteko" gobernu hori mantentzera behartuak izango dira, herriaren arrazoia birrintzeko harraminta oso egokitzat bait dute, gaur egun "demokrazia" deitzen duten hori.

Gauzak horrela, hauteskundeak gure indarra neurtzeko balio diete inperialistei, herriaren ahuldura nabarmenduko balute beraiek maskararik gabe agintzen jarriko zirelarik edota herriaren indartze baten aurrean berriz ejerzitoa kaleratuko luketelarik. Inperialisten interesen administratzaile hauek kolaboratzaile hutsak dira, gure herriaren borrarero, ez jakintasuna ez bait da politikan argudio baliagarria, politikan emaitzaren etikak soilik balio du ez beste ezerk.

## ADIBIDE BATZUK MUNDU ZABALEAN

1. Javier Ortizesk, azaroak 21ean el "Publico" hedabidean idatzi zuen:

Un alto mando del Ejército de los EEUU destacado en Afganistán ha declarado: "El problema no es ganar batallas; podemos ganar todas que haga falta. El problema es ocupar el territorio". Lo más chocante es que lo ha afirmado con gran solemnidad, como si fuera un hallazgo suyo, cuando se trata de una verdad más vieja que Matusalén. Dejando a un lado la baladronada sobre su capacidad para ganar todas las batallas que les haga falta (alguna han perdido), el hecho es que, en efecto, cuando lo que unas Fuerzas Armadas se plantean no es imponerse en un enfrentamiento concreto sino ganar una guerra, no les basta con zurrar durante unas horas al enemigo a base de bien y dejarlo hecho migas. Luego tienen que administrar el resultado. Y para ello resulta obligado quedarse sobre el terreno. Es un inveterado escollo contra el que han chocado todos los imperios. Lo tuvo Alejandro Magno. Lo tuvo Atila. Lo tuvo Julio César. Lo tuvo -vaya que sí lo tuvo- Napoleón Bonaparte. Lo tuvo Adolf Hitler. Uno puede abrirse paso a sangre y fuego y llegar hasta los Urales a tiro limpio. Gran hazaña. Pero, una vez que está allí, ¿qué hace? ¿Volverse para casa en el siguiente tren o quedarse a vivir?.

2. Irakeko okupazioa adibide giza har dezakegu: bertan, amerikar ejerzitoa dagoen artean, bera da subirano. Estatu Batuek ez dute inoiz bere interesen kontra dagoen alderdi politikorik onartuko. Bere aldeko gobernuak sortu du eta amerikar ejerzitoaren lana egingo duen polizia ere bai. "Erresistentzia armatua" desagertzean ez dira amerikanoak "joango", mehatxuaren bidez kontrolpean jarraituko du Irakek.

Gure kasua diferentea da, gure Estatuak urte gehiago baitaramatzau inbaditurik.

3. Tibet eta Nafarroaren arteko ezberdintasun nagusia, Tibeten bertan Txinak ezarritako gobernu txotxongilo bat dagoela da (Nafarroan anitz) eta erbestean mundu guztiak Tibeteko gobernutzat hartzen duena (eta guk ez duguna). Bitartean Txina tibetar herria ahultzen saiatzen da, euren historia moldatuz, orain "mendietako txinatarrak" deitzen dituzte, txinatar hizkuntza unibertsalaren aurrean beraien hizkuntza gutxiesten dute (armen bidez lortzen du hizkuntza batek mundura zabaltzea), eta tibetar herria txinatarrak balitz bezala hezitzen dute.

Baina momentuz ez dute tibetar herria hain erraz engainatzerik lortu eta errepresio armatura behin eta berriz jotzen dute.

Ezaguna egitez zaizue?